BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3109

EBAZPENA, 2009ko urriaren 5ekoa, Ingurumeneko sailburuordearena, Laminados de Aretxabaleta, S.A. sozietateari ingurumen-baimen bateratua ematen diona, Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoa) brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko.

AURREKARIAK

2007ko urriaren 5ean, Miriam Roldán Marrodán-ek, Laminados de Aretxabaleta, S.A. sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumen-baimen bateratua ematea eskatu zion, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoa) brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko. Eskaerarekin batera, Aretxabaletako Udalak emandako aldeko hirigintza-txostena (2007ko urriaren 1ekoa) eta agiri tekniko hauek aurkeztu zituen:

– «Ingurumen-baimen bateratua izapidetzeko proiektu teknikoa. Laminados de Aretxabaleta, S.A.» (2007ko urria).

– «Laburpen ez-teknikoa» (2007ko urria).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak, jarduera-baimena zuen (2001eko urtarrilaren 11koa, metal ez ferrikoen galdaketarako.

2007ko urriaren 18an, 2008ko otsailaren 11n eta 2008ko uztailaren 18an, ingurumen-organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari, eta agiri horiek 2007ko azaroaren 2an, 2008ko martxoaren 17an eta 2008ko urriaren 16an bidali ziren, hurrenez hurren.

Ingurumeneko sailburuordearen 2009ko urtarrilaren 13ko Ebazpenaren bidez, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak sustatutako proiektua 30 egun balioduneko epean jendaurrean jartzea erabaki zen, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2009ko otsailaren 2an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegazio bat aurkeztu dela egiaztatu da, zeina I. eranskinean jaso baita, modu laburtuan.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2009ko martxoaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Aretxabaletako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko irailaren 1ean, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren

kutsadura saihestea, edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz; helburua da ingurumen guztia ongi babestea.

Apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez (errege-dekretu horren bidez,uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen da), baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak, hots, 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak aurkeztutako proiektuaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen sortzaileak behar dituen baimenak; saneamenduko sare orokorrera isurketak egiteko baimena; eta ingurumen izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkionak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Beste administrazio eta erakunde eskudunek egindako txostenak aurkeztuko ditu, espedientean parte hartzen duela agerian utziz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen- baimen bateratua emateko prozedurak azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzkoak, aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumen-baimen bateratua udal agintaritzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresari dagokion ingurumen-baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Aretxabaletako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen BREF agiri hauen edukiak hartu dira kontuan: burdinazkoak ez diren metalen prozesuen industria-sektoreari dagokiona (Reference Document on Best Available Techniques in the Non Ferrous Metals Industries), 2001eko abenduaren 21ekoa; eta fundizioari dagokiona (Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry), 2005eko maiatzekoa.

Espedienteko txostenak eta jendaurreko informazio-aldian aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren (ebazpen honen I. eranskinean jasotzen dira organo honen oharrak), ebazpen-proposamena egin zen, zeinari erantsi baitzitzaizkion Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak sustatutako proiektuari aplikatu beharreko baldintzak.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Ondorengo araudia aztertu da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko irailaren 1ean egindako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorra, Euskal Herriko Ingurumena babestekoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia. Horiek horrela, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aretxabaletako Banuetxe poligonoan (5E) dagoen (Gipuzkoa) eta IFK-zenbakia A-20426409 duen Laminados Aretxabaleta, S.A. enpresari Ingurumen Baimen Bateratua ematea, Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoa) brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko 2.5.b) kategorian dago, «Metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, galdategian moldekatzea) galdatzeko instalazioak, berunerako eta kadmiorako eguneko 4 tonatik gora, edo gainerako metal guztietarako 20 tona urtzeko gaitasuna dutenak».

Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresa Gipuzkoako Aretxabaletako Banuetxe poligonoan (5E) dago. Lur-eremuaren azalera, guztira, 10.943 m^2-koa da.

Jarduera honetan oinarritzen da: burdinazkoak ez diren metalak urtzea, ijeztea eta ebakitzea, eta banda etengabeen estaltze metalikoa, brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko. Plantaren ekoizpen-gaitasuna hauxe da: letoizko piezei dagokienez (PB), 2.121.921 kg urteko; brontzezko piezei dagokienez, 267.681 kg urteko; eta alpakazko piezei dagokienez, 111.913 kg urteko.

Jasotako lehengaiak hautatzen dira (kobrea, zinka, letoia, eztainua eta nikela), eta urtze-labeetan sartzen dira (3 urtze-labe eta 2 mantenimendu-labe, elektrikoak).

Urtzearen ondoren, metal likidoa lortzen da, zeina mantenimendu-labeetara bideratzen baita (850 kg/ordua).

Jarraian, ijezketa egiten da arbastatze-ijezkailu batean, eta taladrinen bidez hozten da.

Akaberako eragiketa zenbait egiten dira; besteak beste, honako hauek: suberaketa ertaina, suberaketa-labeetan; desugerketa, azido sulfurikoarekin; saneatzea; amaierako suberaketa, nitrogenoaz kontrolatutako atmosferadun suberaketa-labean; ebaketa eta errektifikatzea.

Azkenik, amaitu diren produktuak paketatu egiten dira, bidali aurretik.

Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresaren instalazioek atmosferara isurtzeko 4 foku dituzte (1. eta 2. fokuak, urtze-prozesuari lotuak, 3. fokua, fresatzailearen xurgatze-dorreari lotua, eta 4. fokua labe berri bati lotua). Urtzean zehar sortutako isuriak mahuka-iragazki baten bidez bilduak eta garbituak izaten dira, kanpora atera baino lehen. Suberaketan sortutako isuri barreiatuek biltze-sistema daukate.

Ur beltzak eta industria-urak bereizteko sarea dago, zeintzuk kolektorera zuzentzen baitira, 6 isurketa-punturen bidez.

Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak sortutako hondakin arriskutsu garrantzitsuenak honako hauek dira, nagusiki: taladrina, beste emultsio batzuk, olio minerala eta kutsatutako ontziak; plantan sortutako hondakin ez arriskutsu garrantzitsuenak, berriz, honako hauek dira, nagusiki: txatarra, papera eta kartoia, egurra, plastikoa, hiriko hondakinekin batera daitezkeen hondakinak.

Proiektuak, besteak beste, neurri hauek barne hartzen ditu, zeinak Teknika Erabilgarri Onenak (TEO) bezala har baitaitezke: kudeatzaile baimendu baten bidez biltzen dira zepak, zeinak berreskuratzera bideratuko baititu kudeatzaileak; urtze-prozesuan ez da erabiltzen ez gatzik, ez urtugarririk; indukzio-labeen isurketen biltzea eta arazketa egiten da.

Bigarrena.– Baldintza eta betebehar hauek ezartzea Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko jarduera ustiatzeko, Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoa).

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonari dagokionez, Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak aldaketa horren berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresaren planta ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gaindituko.

Era berean, prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsagarri oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsagarrien ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatuko eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldaketei eraginkortasunez aurre egiteko moduan. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Laminados de Aretxabaleta, S.A. sozietatearen instalazioak honako fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera (m)	Diametroa (m)	Katalogazioa.	Koordenatuak UTM	
					Taldea	X	Y
1	20000092-01	Xurgatzea, 1	8	0,72	B	540.617	4.764.198
2	20000092-02	Xurgatzea, 2	4	0,75	B	540.599	4.764.192
3	20000092-03	Fresatzailearen xurgatzea	4	0,3	C	540.587	4.764.160
4	20000092-04	Labe berria (Moratille)	5	0,5	C	540.654	4.764.161

Gainera, isuri lausoak sortzen dira azido sulfurikoaren desugerketa-lerroan eta suberaketarako gas naturalezko kanpai-labeetan.

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Isuri atmosferikoek isurtzeko muga-balio hauek ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokuak		Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1	Xurgatzea, 1	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
		Cl (HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	30 mg/Nm^3
2	Xurgatzea, 2	Partikulak guztira	20 mg/Nm^3
		Cl (HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	30 mg/Nm^3
3	Fresatzailearen xurgatzea	Partikulak guztira	150 mg/Nm^3
4	Labe berria (Moratille)	Partikulak guztira	150 mg/Nm^3
		NO_x	300 ppm
		CO	500 ppm

Isurtzeko muga-balioak baldintza hauei buruzkoak dira: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an, muga-balioa gehienez % 25 gainditzea onartuko da. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

KOHei dagokienez (KOG gisa neurtuak), ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), baldin eta neurketa guztien batezbestekoak isurtzeko muga-balioak gainditzen ez baditu eta ordubeteko neurketetako batek ere isurtzeko muga-balioak 1,5eko faktoretik gora gainditzen ez baditu.

B.1.4.– Gasak bildu eta husteko sistema.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximinietan behar beste neurri hartuko dira Industria Ministerioak industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari aurrea hartu eta hori zuzentzeari buruz 1976ko urriaren 18an emandako Agindua bete dezaten; besteak beste, laginak hartzeko puntuetara iristeko sarbide seguru eta errazak izango dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusten diren zuloen kokapen eta ezaugarriei dagokienez, egokitu behar dira laginak hartzeko gunetik fluxuaren noranzkoaren eta kontrako noranzkoaren arabera (L1 eta L2 parametroak) neurketa-gunea baino lehenago dagoen fluxu gaseosoko edozein perturbaziora arteko distantziak, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean ezarritakoaren arabera.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

B.2.– Saneamendu-sarera isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	UTM koordenatuak
1	Etxeko urak	Komun eta aldageletan sortzen diren ur sanitarioak	Udal-kolektorea	X: 540.505 Y: 4.764.214
2	Industria-urak	Hozte-purgatzeetatik sortutako industria-urak eta hondakin-uren araztegian (HUA) garbitutako urak.	Udal-kolektorea	X: 540.561 Y: 4.764.207
3	Euri-urak	Estalkietatik datozen urak	Udal-kolektorea	X: 540.621 Y: 4.764.202
4	Euri-urak	Estalkietatik datozen urak	Udal-kolektorea	X: 540.578 Y: 4.764.201
5	Euri-urak	Estalkietatik datozen urak	Udal-kolektorea	X: 540.540 Y: 4.764.200
6	Euri-urak	Estalkietatik datozen urak	Udal-kolektorea	X: 540.516 Y: 4.764.206

B.2.2.– Gehienez isuri daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. isurketa: erabilera sanitarioko urak.

Eguneko gehienezko bolumena	78 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	1.448 m^3/urteko

b) 2. isurketa: industria-urak.

Orduko puntako emaria	3,25 m^3/egun
Urteko gehienezko bolumena	413 m^3/urteko

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Azken isurketak Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren «Saneamendu-sarera doazen isurketak erregulatzeko araudian» adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Instalazioak hondakin-uren araztegi bat dauka, zeinaren tratamendu-ahalmena 5 m^3 orduko baita, eta metal astun gehienen hauspeatzea ahalbidetzen baitu, neutralizazio-, malutapen- eta hauspeatze-prozesu baten bidez.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazteko instalazioetan, isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik, eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Aurkeztutako agirien arabera, isurketak kontrolatzeko kutxeta bat jarriko da baimendutako hondakin-ur mota bakoitzerako; kutxeta horrek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko beharrezkoak diren ezaugarri guztiak izango ditu. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

B.3.– Instalazioetan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Fabrikan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Berariaz debekatuta dago sortutako mota desberdinetako hondakinak elkarren artean edo beste hondakin edo efluente batzuekin nahastea; jatorrian bereizi behar dira haiek, eta behar diren biltze- eta biltegiratze-bitartekoak jarri behar dira haiek ez daitezen nahasi.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro balioztatu egin behar da eta horretarako balioztatzegune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa Kontseiluaren 2002ko abenduaren 19ko 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira, eta hala badagokio, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideak.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira ezbeharrean gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hauts itxurako hondakinen kasuan, hondakinak euri-urarekin bustitzea edo haizeak herrestan eramatea eragotziko da, eta, beharrezkoa izanez gero, estali egingo dira.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Aretxabaletako Udalean.

B.3.1.– Hondakin Arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Beroan ijeztea, soldadura».
  - 1. hondakina: «Taladrina».
    - Identifikazioa: 2042649 2000026307/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q7//D13//L9//C51//H5//A231(2)//B3140.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 42 tn.

GRGan biltegiratzen da, estalitako hondakin-biltegian, identifikatutako gune batean, harik eta kudeatzaile baimenduak jaso arte.

● 2. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».

○ 1. hondakina: «Beste emultsio batzuk».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//D15//R9//L9//C51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 130802.

– Urtean sortutako kantitatea: 22 tn.

Hondakin hori kudeatzaile baimenduak kentzen du, zuzenean, sortu den lekutik.

○ 2. hondakina: «Olio minerala».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R13//L8//C51//H5/6//A231(2)//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,5 tn.

Instalazioaren kanpoaldeko GRGan biltegiratzen da, estalitako eremu batean, atxikipen-kubetarekin, harik eta kudeatzaile baimenduak jasotzen duen arte.

○ 3. hondakina: «Erabilitako material xurgatzailea (taladrina-iragazkiak, eskularruak,...)».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q4//D15//S40//C41/51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 4,6 tn.

200 litroko metalezko bidoietan biltegiratzen da, instalazioaren kanpoaldean, identifikatutako eremu batean, harik eta kudeatzaile baimenduak eramaten duen arte.

○ 4. hondakina: «Ontzi kutsatuak».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41/51//H5//A231(2)//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 45 kg.

Instalazioaren kanpoaldean biltegiratzen dira, hondakin horrentzat identifikatutako eremu batean, harik eta kudeatzaile baimenduak eramaten dituen arte.

○ 5. hondakina: «Fluoreszenteak».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H06/14//A231(2)//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 6 ale.

Instalazioaren kanpoaldean biltegiratzen dira, hondakin horrentzat identifikatutako eremu batean, harik eta kudeatzaile baimenduak eramaten dituen arte.

○ 6. hondakina: «Ekipo informatiko zaharkituak».

– Identifikazioa: 2042649 2000026307/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q14//R13//S40//C06/08//H06/14//A241//B0019.

– EHZ: 200136.

– Urtean sortutako kantitatea: hondakin puntuala.

Instalazioaren kanpoaldean biltegiratzen dira, hondakin horrentzat identifikatutako eremu batean, harik eta kudeatzaile baimenduak eramaten dituen arte.

● 3. prozesua: «Desugerketa-bainuen tratamendua».

Irakuzketetako eta desugerketa-bainuetako uren arazketa-prozesuak barne hartzen du zuzenketa bidez pHa neutralizatzea, malutapena, dekantazioa eta loditzea. Prozesuaren ondorioz, «araztegiko lohiak» izeneko hondakina sortzen da, zeina ezaugarritu egin beharko baita bere kudeaketa-bidea ezartzeko, B.3.2.a) puntuan ezarritakoaren arabera.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistema bereiziak erabiliko dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) «Beste emultsio batzuk» hondakina zuzenean jaso behar da sortzen den instalazioko andeletatik, aurretik ontziratu eta biltegiratu gabe, eta kudeatzaile baimenduari eman behar zaio.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko puntuan aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta, etiketak argia, irakurtzeko modukoa, ezabaezina eta uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izan beharko du.

e) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio,

arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren ale bat garraiolariari emango zaio, eta zamarekin batera eraman beharko da jatorritik helmugaraino. Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituen bitartean, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak.

l) Laminados de Aretxabaleta, S.A. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 (EE) Erregelamenduan, ozono-geruza agortzen duten substantziei buruzkoan, zehazturiko substantzia erabiliak bere eskuetan dituen heinean, berreskuratu egingo dira, aldeek onetsitako bitarteko teknikoen bidez edo ingurumenaren ikuspegitik onargarria den beste edozein deuseztatze-bide tekniko erabiliz deuseztatzeko, edota birziklatzeko edo birsortzeko erabiliko dira, aparatuak berrikusteko edo mantentzeko lanetan nahiz desmuntatu edo deuseztatu aurretik.

m) Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari, ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helburua eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak prebentziozko neurriak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko f, g (kudeatzaileak EAEn daudenean), m eta n ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela IKS-eeM Sistema erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzea jasotzen duen otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egitean segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta dagoen	Zenbatetsitako ekoizpena (t/urtea)
Papera eta kartoia	200101	Fabrikako orokorra	0,1
Zura	200138	Fabrikako orokorra	2,4
Plastikoa	200139	Fabrikako orokorra	0,06
Hiri-hondakinekin batera daitezkeen hondakinak	200301	Fabrikako orokorra	0,4
Txatarra	170405	Fabrikako orokorra	4 m^3
Araztegiko lohiak	190205	Desugerketa	2,2
Mahuka-iragazkiko xehekiak	101010	Galdaketako isurien arazketa	40
Labeko zepak	100501 100601	Galdaketa	Noizean behin
Inprimagailuko tonerrak eta kartutxoak	080318	Bulegoa	3-4 unitate
Pilak	160604	Fabrikako orokorra	5 unitate

Sustatzaileak urtean sortutako «labe-zepak» izeneko hondakin ez-arriskutsuaren kantitatea adierazi beharko du.

a) «Araztegiko lohiak» eta «mahuka-iragazkiko xehekiak» hondakinek ispilu sarrera dutenez Hondakinen Europako Zerrendan, kudeatzaile baimenduak eraman baino lehen, ingurumen-organoan aurkeztu beharko da hondakin horien karakterizazio bat, hondakin ez arriskutsutzat hartzeko eta proposatutako kudeaketaren egokitasuna egiaztatzeko. Karakterizazio horretan sartu beharreko parametroak zehaztearren, Ingurumen Sailburuordetzarekin harremanetan jarri beharko dute. Baldin eta hondakina arriskutsua dela ezartzen bada, Ebazpen honetako B.3.1 idatz-zatian jasotako xedapenak aplikatuko dira.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio –hornitzaileari–, erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztatzaile baimendu bati emango zaizkio.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean, ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki; hondakinen azken helburua balioa ematea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakin guztiak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek emandako onarpen-agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali behar zaio Ingurumen Sailburuordetzari, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakinak zabortegian utzita eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat edukiko du, eta bertan, ondorengo datu hauek jasoko dira: kopurua, izaera, identifikazio kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera eta lagapen datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d) eta e) (kudeatzaileak EAEn daudenean), eta f) idatz-zatietan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak lurzorua babesteko neurriak ezarrita izan behar ditu, hondakinen biltegiratzeari eta instalazioaren funtzionamendu anomaloari dagokienez.

Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak induskatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, induskatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko bideak zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako helmuga zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik, lanak onartu ahal izateko. Azterketa eta onarpena, hala badagokio, ebazpen honetako H) atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak jarriko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 8:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzerakoan egiten den zaratak ez du handituko akustikoki oso sentikorrak diren aldeetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara egindako isuriak kontrolatzea.

a) Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak egiten dituen isurketak kontrolatu beharko ditu, ondorengoaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	20000092-01	Xurgatzea, 1	Partikulak guztira	Urtean behin
			PCDD eta PCDF	Neurketa lehen urtean
			Cl (HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	Urtean behin
			COT	Urtean behin
2	20000092-02	Xurgatzea, 2	Partikulak guztira	Urtean behin
			PCDD eta PCDF	Neurketa lehen urtean
			Cl (HCl eta Cl_2 arteko batura gisa)	Urtean behin
			COT	Urtean behin
3	20000092-03	Xurgatzea, fresatzailea???	Partikulak guztira COT	5 urte
4	20000092-04	Labe berria (Moratille)	Partikulak guztira NO_x CO COT	5 urte

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol erakunde baimendu batek (KEB) egin beharko ditu (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez, zortzi orduan zehar neurtuta; eta dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6-8 orduko neurketa bat), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakoaren arabera egin beharko dira. Nolanahi ere, isurtzeko kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Parametroak neurtu ez badira edota ebazpen honetan neurketak egiteko ezarritako maiztasuna baina zaharragoak badira, berriro neurtu beharko dira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta 1976ko urriaren 18ko Aginduak, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoak, 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egin diren neurketen emaitzak, mantentze-eragiketak, garbiketa, aldiroko berrikuspenak, matxurengatiko geldialdiak, egiaztapenak, edozein motako gertaerak, eta abar. Dokumentazio guztia eguneratuta edukiko da eta ingurumen-ikuskarien eskura egongo da.

C.2.– Isuritako uren kalitatea kontrolatzea.

a) Kolektorera isuritako uren kontrola ondoren adierazitako puntu, parametro eta maiztasunaren arabera egingo da:

Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
Industria-urak	pHa, konduktibitatea, solido esekiak, olioak eta grasak, OEK, guztizko fosforoa, Fe, Zn, Cu, Pb, Mn	Urtean behin	Kanpo-kontrola

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek edo saneamendu-sarearen kudeaketa-arduradun den erakundeak egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak kontuan hartuta gauzatuko da. Sustatzaileak isurketaren lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, laginak hartzen direnetik hilabeteko epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da B.2 atalean ezarritako parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren funtzionamenduaren adierazle hauen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Energia-Kontsumoa/Ekoitzitako tn	kWh/produzitutako tn
Uraren kontsumoa/ Produzitutako tn	m^3/Produzitutako tn
Lehengaien Kontsumoa/Produzitutako tn	Tn lehengai/Produzitutako tn
Hondakin arriskutsuen kantitatea/Produzitutako tn	Tn hondakin arriskutsu/Produzitutako tn
Sortutako hondakin ez arriskutsuen kantitatea/Produzitutako tn	Tn hondakin ez-arriskutsu/Produzitutako tn

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori Ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den Ingurumena Zaintzeko Programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina egin beharko du. Bertan, aurkeztutako dokumentazioan proposatutako betebeharrak eta ebazpen honetan jasotakoak bildu beharko ditu. Programa horrek honako hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko

parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua adierazi beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez, isurtzeen eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du sustatzaileak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (27.55 epigrafea «Burdinazkoak ez diren beste metal batzuen galdaketa»), eta lurzoruan kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, ustiapenari buruzko eskuliburu bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gertaerena ere.

e) Olioa, produktu kimikoak eta hondakinak –besteak beste– maneiatzeak lurzorua eta ura kutsatzeko arriskua sor dezake. Beraz, isurketak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak betetzen dituztela. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak aurkeztuko zaizkio.

h) Isuri-egoeran berehala eta eraginkortasunez jarduteko beharrezko diren material guztien behar besteko kantitatea eduki beharko da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen isuriei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, kaltetutako ingurunea isolatzeko hesiak eta seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

i) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

j) Lantegietan egiten diren zolata-garbiketetatik datozen urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

k) Larrialdi-egoeretan babes zibilari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko da, eta araudi horretan ezarritako baldintza guztiak bete beharko dira.

l) Titularrak beharrezko neurriak hartuko ditu araztegiak egoki ustiatzeko eta ezbeharrez gerta daitezkeen isuriak saihesteko dauden segurtasun-neurriak erabilgarri izateko.

m) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

n) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat gertatuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

– Gertakari-mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

– Iraupena.

– Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.

– Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

– Eragindako kalteen balioespena.

– Hartutako neurri zuzentzaileak.

– Berriro ez gertatzeko aurreikusitako neurriak.

– Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

o) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztuko dira eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da erakunde eskudunaren aurrean.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isurtzeei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuaren, E-PRTR Araudiko eta ingurumen-baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Ingurumen-Informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroetara (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena. Datu horiek guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean eragina duten jardueren erregistroa osatuko dute, eta erregistro hori transakzio-basea izango da, datuak Europako Ingurumen Agentziaren erregistroetara bidaltzeko, E-PRTR-Europa erregistrora, alegia.

Era berean, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatu ingurumen-adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori publikoa izango da, ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoak parte hartzeko eta ingurumen gaietan justiziara heltzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak xedatutakoari jarraikiz –lege horrek 2003/4/EE eta 2003/2005/EE zuzentarauak kontuan hartzen ditu– eta, betiere, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa bermatuko da.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumen-baimen bateratu honen eraginpeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute uztailaren 1eko 16/2002 Legeak, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzkoak, 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.3.1.f) eta B.3.2.d) (hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak onartzeko agiriak), B.3.1.n) eta B.3.2.f) (hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak kontrolatzeko

erregistro-eredua); C.1 (atmosferara egiten diren isurketen kontrola); C.1.d) (atmosferara egiten diren isurketen erregistro-eredua); C.4 (zaratak kontrolatzeko proposamena); C.6. (Ingurumena Zaintzako Programaren agiri bategina); D.1 (Isurketa eta hondakinen sorreraren zenbatespena mantentze-lanetan); D.3.a (prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); D.3.g) (produktu kimikoak biltegiratzeko egiaztagiriak); D.3.h) (larrialdi-kasuetarako material-zerrenda); D.3.i) (kubetak husteko protokoloa); eta D.3.o) (suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskaritza-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari eskumendun batek egina.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, Ingurumen Sailburuordetzak ingurumen-baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da, eta, horren bitartez, ingurumen-baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumen-baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da, eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumen-baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumen-baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuetan.

Seigarrena.– Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak titulartasun-aldaketari eginez gero brontze, letoi eta alpakazko produktuak fabrikatzeko instalazioari dagokion eta ebazpen honen xede den jardueran, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du honako hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako hirugarren atalean ingurumen-baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak, behar bezala justifikatuz, epea luzatzeko eskatzen ez badu.

– Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

– Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresari, Aretxabaletako Udalari, ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, halaxe baitago ezarrita Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 114. artikuluan eta hurrengoetan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 5a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERAN VERGARA.

I. ERANSKINA

Alegazioen laburpena.

Ingurumen-organoak ingurumen-baimen bateratua emateko prozeduraren barruan egindako jendaurreko informazio-garaian, alegazio-idatzi bat aurkeztu zen Prozedura horren bidez, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresari ingurumen-baimen bateratua eman nahi zaio, Gipuzkoako Aretxabaletako udalerrian brontze, letoi edo alpakazko produktuak fabrikatzeko jarduerarako).

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumen-baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta ingurumen-baimen bateratuko prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak, instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Dena dela, agertutakoek planteatutako hainbat alderdiri erantzun zehatzago bat emateko xedearekin, ingurumen-organo honek txosten hau osatu du, ondorengo ataletan azalduko diren alegazioen edukiak sailkatuta:

1.– Eskabidearen edukia.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan akats batzuk daude; adibidez, isurketak Oria ibaira egiten direla esaten da, Deba ibaira egiten direla esan beharrean; eta arrisku-planak gertuen dagoen ospitalea Zumarragakoa dela adierazten du, Debagoienakoa dela adierazi beharrean. Ikusi batera garrantzia handirik ez badu ere, horrek guztiak pentsarazten digu enpresa-zuzendaritzak ez duela irakurri, eta, beraz, interes txikia erakusten du.

Isurketa- eta birziklatze-sistemen ekipo eta kontrolen arduradun diren enpresekin hitzartutako kontratuak eransten dira, baina zaharkituak dira.

Oharrak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea, edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarriz; helburua da ingurumen guztia ongi babestea.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluan xedatutakoa betez, ingurumen-baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko, eta instalazio horien artean dago Laminados Aretxabaleta, S.A. enpresarena.

Aipatu xedapenaren lehenengo xedapen iragankorrak zehazten du zein erregimen aplikatu behar zaien instalazioei. Natur ondareari eta biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bidez aldatutako xedapen horretan ezarritakoaren ondorioz, dauden instalazioen titularrek horretara egokitu behar dute 2007ko urriaren 30a baino lehen, eta egun horretarako ingurumen-baimen bateratua izan beharko dute. Halaber, xedatzen du badauden instalazioek behin-behinekoz funtzionatzen jarraitu ahal izango dutela, gehienez ere adierazitako eguna baino 6 hilabete gehiagoan, organo eskudunak berariazko ebazpenik eman gabe, betiere ingurumen-baimen bateratuaren eskaera 2007ko urtarrilaren 1a baino lehen aurkeztu bada.

Esparru horretan, 2007ko urriaren 5ean, Miriam Roldán Marrodán-ek, Laminados de Aretxabaleta, S.A. sozietatearen izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumen-baimen bateratua ematea eskatu zion, Aretxabaletako udalerrian (Gipuzkoa) brontzezko, letoizko eta alpakazko produktuak fabrikatzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 12. artikuluak ezartzen duenaren arabera, ingurumen-baimen bateratuaren eskabideak, gutxienez, jarraian adierazten dokumentazioa barne hartu behar du, hargatik eragotzi gabe autonomia erkidegoek ondorio horretarako zehazten dituztenak:

a) Oinarrizko proiektua, alderdi hauek, behintzat, jasotzen dituena:

– Jardueraren eta instalazioen, produkzio prozesuen eta produktu-motaren deskribapen zehatza eta nondik norakoa.

– Sailkatutako jarduerei buruzko udal-lizentzia lortzeko eskatzen den dokumentazioa, zeina Jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen erregelamendua onartzen duen azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan edo aplikagarriak diren xedapen autonomikoetan araututa baitago (hargatik eragotzi gabe 29.2 artikuluan ezarritakoa).

– Jada baimendutako instalazio batean oinarrizko aldaketa bat egiten bada, aldaketa horrek eragindako zatia edo zatiak.

– Instalazioaren kokalekuari dagokion ingurumen-egoera eta aurreikusten diren inpaktuak, ustiapena amaitzean sor daitezkeenak barne.

– Instalazioan erabilitako edo sortutako baliabide naturalak, lehengaiak eta osagarriak, substantziak, ura eta energia.

– Instalazioaren isuriak sortzen dituzten iturriak.

– Instalazioak airera, uretara eta lurrera egingo dituen isurien mota eta kantitatea, baita sortuko diren hondakinen mota eta kantitatea ere, eta horiek ingurumenean izango dituzten ondorio garrantzitsuak.

– Instalaziotik datozen isuriak prebenitzeko eta ekiditeko –edo hori ezinezkoa izanez gero, murrizteko– erabiliko den teknologia eta beste teknika batzuk.

– Sortutako hondakinak prebenitzeko, murrizteko eta kudeatzeko neurriak.

– Isuriak murrizteko eta kontrolatzeko aurreikusitako sistemak eta neurriak.

– Legearen 4. artikuluko printzipioak betetzeko proposatutako gainerako neurriak.

– Eskatzaileak aztertutako alternatibarik garrantzitsuenen laburpena, halakorik egonez gero.

b) Instalazioaren kokalekuari dagokion udalaren txostena, egiaztatzen duena proiektua bat datorrela hirigintza-planeamenduarekin, 15. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

c) Hala badagokio, ur-legeriak ur kontinentaletara isurketak egiteko baimenerako eskatutako dokumentazioa, eta kostaldeei buruzko legeriak lurretik itsasorako isurketak egiteko baimenerako eskatutakoa.

Ur kontinentaletara egiten diren isurketak erkidego arteko arroei dagozkienak baldin badira, dokumentazio hori arroko erakundeari bidaliko dio Autonomia Erkidegoko organoak, hots, eskabidea jaso duenak, hark adieraz dezan eskatzaileari akatsa zuzentzeko edo beharrezkoak diren dokumentuak aurkezteko eskatzea beharrezkoa den ala ez.

d) Eskatzailearen ustez –indarrean daude xedapenen arabera– konfidentzialtasuna duten datuen zehaztapena.

e) Legeria sektorial aplikagarrian ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen beste edozein dokumentazio, legeria sektorial horren arabera galdagarriak diren derrigorrezko aseguru edo fidantzei buruzkoa barne.

f) Araudi aplikagarrian zehazten den beste edozein dokumentazio eta informazio.

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, 2007ko urriaren 18an, ingurumen-organoak sustatzaileari eskatu zion dokumentazio osagarria eransteko, eta dokumentazio hori 2007ko azaroaren 2an bidali zen. Gero, dokumentazio osagarriari buruzko beste eskaera batzuk egin ziren, zeinak 2008ko martxoaren 17an eta 2008ko urriaren 16an bete baitziren.

Ingurumen-organoak ikusi zuenean Laminados Aretxabaleta, S.A. enpresak eskatuta hasitako espedienteko dokumentazioa bat zetorrela araudiarekin, Ingurumeneko sailburuordeak 2009ko urtarrilaren 13an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jartzea erabaki zen, 30 egun baliodunеko epean, Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2009ko otsailaren 2an. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Ildo horretatik, espedienteko dokumentazioarekin bat etorriz, ur beltzak eta industria-urak bereizteko sarea dago instalazioan, zeinak, 6 isurketa-punturen bitartez, kolektorera bideratzen baitira. Horrela, adierazten da ezen instalazioak hondakin-uren araztegi bat duela, 5 m^3 orduko tratamendu-gaitasuna duena, eta ahalbidetzen duena metal astun gehienen hauspeatzea, neutralizazio-, malutapen- eta hauspeatze-prozesu baten bidez.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legean ezarritakoa betez, ingurumen-baimen bateratuak honako alderdi hauek jaso behar ditu, besteak beste: instalazioan sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedura eta metodoak, isuri eta hondakin mota guztien tratamendu eta kontrolerako sistema eta prozedurak (neurketa-metodologia, haren maiztasuna eta neurketak ebaluatzeko prozedurak zehaztuta), eta ez-ohiko egoerei dagozkien ustiapen-baldintzei buruzko neurriak.

Horrela, ebazpen honetan, Laminados Aretxabaleta, S.A. enpresak bere jardueraren sortzen diren hondakinak direla-eta bete behar dituen baldintzak ezarri dira, eta lehenik eta behin, hau adierazten da: hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei dagokienez, hondakin oro balorizazio batera bideratuko da, eta, horretarako, balorizatzaile baimendu baten esku utziko da. Hondakinak deuseztatu ahal izango dira, baldin eta horiek balioztatzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira, balioa emateko beste modu material edo energetikoen aurretik.

Halaber, beste baldintza batzuekin batera, adierazten da ezen sustatzaileak, hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango duela agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela.

Eta gehitzen da ezen agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dela hondakina lehenengoz erretiratu aurretik, eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Halaber, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetan jasotzen diren hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

Kontuan izan behar da ingurumen-baimen bateratuaren helburua dela bere aplikazio-eremuko instalazioek arauaren xedea betetzen dutela bermatzen duten baldintza oro ezartzea, baimen hori ematen parte hartu behar duten Administrazio Publiko guztien koordinazioa ziurtatzen duen prozedura baten bidez (hartara, izapideak bizkortuko dira eta partikularren administrazio-kargak murriztuko), eta horrekin batera, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimenak administrazioaren esku-hartze bakarrean sartzen dira. Bada, ingurumen-baimen bateratu honetan, beharrezkoa ikusten da sustatzaileak dokumentazio jakin bat aurkeztea, baimenaren eraginkortasuna erabakitzeko. Dokumentazio horretan sartzen dira, hain zuzen ere, kudeatzaileak eman behar dituzten onarpen-agiriak, eta ahalbidetuko du ingurumen-organoaren aurrean berriro frogatzea ezen jardueran sortutako hondakinak zuzentzen zaizkien kudeatzaileak egokitu egiten direla hondakin-kudeaketaren printzipioetara eta baimen honetan ezarritakora.

2.– Hondakinak sortzea.

Galdaketa-instalazioak, indukzio-labeen funtzionamendurako, kondentsazio-bateria dauka, zeinaren isolatzailea Pyralenoa baita. Eta 1378/1999 Errege Dekretuak pyralenoa erabiltzea debekatzeaz gain, osagai hori kentzera behartzen du. Pyralenoak arriskurik handiena du kondentsadoreren baten sute edo leherketa bat gertatzen bada; izan ere, haren degradazioak, dioxinak eta furanoak sortzen ditu. Enpresan lan-osasunaz arduratzen den enpresak ez dauka inolako plangintzarik arrisku hori ekiditeko.

Oharrak.

Adierazi den bezala, ingurumen-baimen bateratuan, jardueran sortutako hondakinei dagozkien baldintzak jasotzen dira, eta, ildo horretatik, ebazpen honen B.3.1.k) atalean hau ezartzen da:

«Laminados de Aretxabaleta, S.A. enpresak poliklorobifeniloak dituzten edo izan ditzaketen gailuak dituen bitartean, nahitaez bete behar ditu poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretuan eta hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretuan adierazitako baldintzak».

Halaber, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez, ingurumen-baimen bateratu honetan ez-ohiko funtzionamenduko egoera batean bete behar diren baldintzak biltzen dira, eta, besteak beste, ezartzen da ezen egiaztatu behar dela instalazioek bete egiten dituztela suteak babesteko indarreko araudian ezarritako baldintzak.